

## XEDAPEN OROKORRAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

## 333

*AGINDUA, 2011ko azaroaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzeko dena.*

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Publikoen titulartasuneko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokor baten bitartez baino ezin izango dira aldatu edo ezabatu; halaber, arestian aipatutako artikulua, aurrekoa garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54. artikuluekin batera, xedapen horren oinarritzko edukia ezartzen du.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikuluen bidez, Datuak Babesteko Erregistroa sortu zen, eta lege horren aplikazio-eremuan barne hartutakoak joko dira bertan erregistratzeko fitxategizat.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (DBEB) emango diote sortzen, aldatzen edo ezabatzen diren izaera pertsonaleko datuen fitxategi guztien berri, Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten, xedapena edo erabakia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak emandako 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenak (2005eko abuztuaren 31ko EHAA, 165. zk.) onartutako eredu normalizatuaren bitartez bidaliz.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak ezagutzera ematea errazteko eta fitxategi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuaren segurtasunaren antolamenduari buruz Eusko Jaurlaritzak 2002ko uztailaren 16an hartu zuen Erabakiaren edukietara egokitzearren, agindu honen bitartez, izaera pertsonaleko datuen fitxategi guztiak batu egin dira; era berean, agindu honek bere eskumenen eremuko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzeko aurreko xedapen guztiak indargabetzen ditu, eta I. eranskinean xedapen horiek araututako fitxategiak hartzen ditu barne, betiere legezko xedapenen arabera edo denboraren poderioz gomendatzen diren aldaketak eta egokitzapenak eginda; II. eranskinean, berriz, aurreko fitxategi guztiak ezabatzen ditu. Fitxategiak hainbat xedapenetan ez sakabanatzearen, eta betiere argitasunari eta herritarren segurtasun juridikoari begira, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen izaera pertsonaleko datuen fitxategi guztien zerrenda egin da xedapen honen I. eranskinean; horretaz gain, aurreko xedapenetan agertzen ez ziren beste fitxategi batzuk ere bildu dira.

Beraz, lehen aipatutako Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetzeko, honako hau

## XEDATZEN DUT:

## 1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren ardurapeko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzea.

2.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluari eta haren garapenerako araudiari jarraiki, honako hauek agindu honen I. eranskinean adierazitakoak izango dira: fitxategien edo tratamenduen identifikazioa, horien izenak adieraziz eta xedek eta haietarako aurreikusiriko erabilerak deskribatuz, izaera pertsonaleko datuak zein pertsona-talderi buruz lortu nahi diren, fitxategien oinarritzko egitura (identifikazio-datuak, eta hala badagokio, bereziki babestuta dauden datuak xehetasunez deskribatuz, eta baita horien barnean harturiko izaera pertsonaleko datuen gainerako kategoriak ere) eta horren antolakuntzan erabilitako tratamendu-sistemak, aurreikusitako datu-jakinazpenak, datuen nazioarteko transferentziak, fitxategien ardura duten organoak, eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak zein zerbitzu edo unitatetan gauza daitezkeen, eta zer segurtasun-maila eska daitezkeen (oinarritikoa, ertaina eta altua) indarreko araudiari jarraiki.

## 2. artikulua.– Fitxategiak sortzea eta ezabatzea.

Agindu honen I. eta II. eranskinetan zerrendatu diren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortu eta ezabatu dira.

## 3. artikulua.– Datu-lagapenak.

1.– Agindu honen I. eranskinean aurreikusten diren datu-lagapenak baztertu gabe, bertan jasotzen diren datuak laga ahal izango dira, Administrazioaren esparruan, ordenamendu juridikoak euren esku jartzen dituen eginkizunak betetzeko, betiere eskumen berdin-berdinak edota gai berberen gaineko eskumenak gauzatzeko.

2. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste Administrazio Publikoetako organoei eta estatistika-zerbitzuei laga ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean xedatutakoari jarraiki.

3.– Era berean, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluari jarraiki, Arartekoari, Fiskaltzari edota epaileei edo Auzitegiei edota Kontu Auzitegiari laga ahal izango zaizkie izaera pertsonaleko datuak, esleitutako eginkizunak gauza ditzaten.

## 5. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategi bakoitzaren ardura duten organoek fitxategiak sortzen diren helbururako, eta izaera pertsonaleko datuen segurtasuna zainduz, erabil daitezkeen bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, betiere haiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatu eta baliatzea saihesteko moduan; Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aintzat harturiko bermeak, betebeharrak eta eskubideak, eta haien garapen-arauak, gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ere hartu beharko dituzte.

## 6. artikulua.– Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren kontura, edota Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen kontura (Sailari atxikitako erakundea), izaera pertsonaleko datuak

tratatzeko zerbitzuak ematen dituztenek aginduriko eginkizunak beteko dituzte tratamenduaren arduradunaren argibideei jarraiki, eta horrela jasoko da horretarako egiten den kontratuan; ezin izango dira bestelako xederako aplikatu edo erabili, ezta beste inori jakinarazi ere –ezta datuak gordetzeko bada ere–, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, bertan ezarritakoaren aurkakoa xedatzen duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak, eta bereziki agindu honen II. eranskinean –fitxategiak ezabatzekoan– bilduriko fitxategiak, honako hauek sortu zituzten fitxategiak, hain zuzen ere: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta Sail horri atxikitako Erakunde Autonomiadunak kudeatutako izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuak arautzen dituen Agindua aldatzen duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2007ko martxoaren 13ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzen dituen agindua aldatzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko martxoaren 25eko Agindua, orain Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eskumenekoak diren Gizarte Gaiei buruzko fitxategiei dagokienez.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Zerbitzuen Zuzendaritzak agindu honen I. eranskinean bilduriko izaera pertsonaleko datuen fitxategien berri emango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, fitxategi horiek Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten, eta baita II. eranskinean zerrendaturiko fitxategien ezabatzearen berri eman ere, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategia –xedapen honen I. eranskinean bildua– Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten.

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen kasuan, Erakunde horren Zuzendaritzak izango du fitxategi horien berri emateko ardura.

Bigarrena.– Zerbitzuen Zuzendaritzak agindu honen kopia bat helaraziko du Datuak Babesteko Euskal Bulegora, xedapen honen I. eranskinean bilduriko izaera pertsonaleko datuen fitxategia –Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategia, hain zuzen ere– Datuak Babesteko Erregistroan erregistra dezan.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,  
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

## I. ERANSKINA

Fitxategiak sortzea.

Izaera pertsonaleko datuak jasotzen dituen honako fitxategi hauek sortzen dira, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatuak:

1. fitxategia.– Euskadiko kooperatiben erregistroa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: kooperatiben eskatzaileak eta bazkideak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: erakunde pribatuak, interesduna bera.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa. Datuak biltzeko bestelako prozedurak. Paperezko euskarria, euskarri informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan Sailburuordetza

Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarritzko maila.

2. fitxategia.– Lan Sozietateen Erregistroa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Lan Sozietateen Erregistroaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: Erregistroan erregistratzea eskatu dutenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa. Datuak biltzeko bestelako prozedurak. Paperezko euskarria, euskarri informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan Sailburuordetza

Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarritzko maila.

3. fitxategia.– Bazkideak sartzeko laguntzak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: sozietate kooperatibetan bazkideak sartzeko laguntzen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: laguntzen eskatzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, bestelako Administrazio Publikoak.

Datuak biltzeko prozedura: deklarazioak/formularioak, paper bidez edota datuen transmisio elektronikoaren bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, irudia eta sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaioteguna, adina, sexua, nazionalitatea.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostuak, kategoria/maila.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak, subsidioak/mozkinak, banku-datuak, inbertsioak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna, genero-indarkeria.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan Sailburuordetza

Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

4. fitxategia.– Autonomoen Elkarten Erregistroa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Autonomoen Elkarten Erregistroaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: elkarten ordezkariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, erakunde pribatua.

Datuak biltzeko prozedura: deklarazioak/formularioak, paper bidez edota datuen transmisio elektronikoen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA.

Enplegu-datuak: lanpostua.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan Sailburuordetza

Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez:

oinarrizko maila.

5. fitxategia.– Biltzen.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: kulturarteko ekimenen dinamizazioa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: etorkinen elkarteak, etorkinen aldeko elkarteak eta gizarte-erakundeak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: erakunde pribatuak, administrazio publikoak, interesduna bera, erregistro publikoak.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa. Datuak biltzeko bestelako prozedurak. paperezko euskarria, euskarri informatikoa, bestelako euskarriak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: nazionalitatea.

Gizarte-arloko egoerari buruzko datuak: klubetan, elkarteetan egotea.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua.

Bereziki babesturiko datuak: erlijioa.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: arraza-jatorria.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sails

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

6. fitxategia.– Etorkinentzako aholkularitza juridikoa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: etorkinentzako aholkularitza juridikoko zerbitzuaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: zerbitzua eskatzen duten etorkinak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna.

Datuak biltzeko prozedura: telefonoz.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, irudia eta sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna eta jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: zaletasunak eta bizi-estiloa, lizentziak, baimenak, autorizazioak, klubetan, elkarteetan egotea, ondasunak/onibarrak.

Enplegu-datuak: kategoria/maila, gorputza/eskala, nomina-datu ez-ekonomikoak, langilearen historia, lanpostuak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: nomina-datu ekonomikoak, diru-sarrerak/errentak, subsidioak, mozkinak.

Transakzio-datuak: interesatuak jasotako ondasunak eta zerbitzuak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna, erlijioa.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

7. fitxategia.– Immigrazio-txostenen fitxategia.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: etorkinei buruzko txostenak igortzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: txosten bat eskatzen duten etorkinak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna.

Datuak biltzeko prozedura: deklarazioak/formularioak, paper bidez edota datuen transmisio elektronikoaren bitartez.



d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, irudia eta sinadura, Gizarte Segurantzako zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna eta jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea, ama-hizkuntza.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: alojamenduaren eta etxebizitzaren ezaugarriak, ondasunak/onibarrak.

Datu akademikoak eta profesionalak: prestakuntza/titulazioak, lanbide-esperientzia, ikaslearen historia.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostuak, kategoria/maila, langilearen historia.

Merkataritza-informazioko datuak: jarduerak eta negozioak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak.

Bereziki babesturiko datuak: afiliazio sindikala, afiliazio politikoa.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

8. fitxategia.– Familia ugariak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: familia ugarien txartelak igortzea,

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: familia ugariaren izaera duten bizikidetza-unitateetako kideak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: Foru Aldundietatik.

Datuak biltzeko prozedura: euskarri informatikoaren bitartez informatizatuta.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna eta jaioterria, adina, sexua.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasun-datuak.

e) Datu-lagapenak: Administrazio Publikoen Ministerioa.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

9. fitxategia.– Izatezko Bikoteen Erregistroa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Euskadiko Izatezko Bikoteen Erregistroaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: Erregistroan erregistratzeko eskatzen duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, Udalak, bestelako Administrazio Publikoak.

Datuak biltzeko prozedura: paperezko deklarazioa/formularioa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna, adina, sexua, nazionalitatea.

Ekonomia- eta finantza-datuak: itun ekonomikoa.

e) Datu-lagapenak:

Foru Aldundiak

Izatezko Bikoteen bestelako Erregistro autonomikoak

Zerga Agentzia

Etxebide

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

10. fitxategia.– Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko diru-laguntzen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzen eskatzaileak eta loturiko hirugarrenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna eta interesdunaz aparteko pertsonak.

Datuak biltzeko prozedura: paperezko formularioak eta formulario informatikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, Gizarte Segurantzako zenbakia, sinadura eta irudia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna, adina, sexua, nazionalitatea.

Enplegu-datuak: lanpostua.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak, banku-datuak, nomina-datu ekonomikoak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

11. fitxategia.– Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: seme-alabak dituzten familientzako laguntzen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: seme-alaben jaiotzagatiko edota adopzioagatiko laguntzen eskatzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna eta interesdunaz aparteko pertsonak, bestelako Administrazioak.

Datuak biltzeko prozedura: paperezko formularioak eta formulario informatikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura, irudia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-datuak, jaioteguna, adina, sexua, nazionalitatea.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak, banku-datuak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

12. fitxategia.– Boluntariotza indartzeko laguntzak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: boluntariotzarekin loturiko erakundeetarako laguntzen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: elkarteen ordezkariak eta boluntarioak, diruz lagun daitezkeen proiektuetan parte hartzen dutenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, enpresa pribatuak.

Datuak biltzeko prozedura: paperezko formularioak eta formulario informatikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura.

Enplegu-datuak: lanpostua, lanbide-esperientzia.

Datu akademikoak eta profesionalak: prestakuntza eta titulazioak.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarritzko maila.

13. fitxategia.– Boluntariotzako erakundeen errolda.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: boluntariotzarekin loturiko Elkarteen Erregistroaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: elkarteen ordezkariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, enpresa pribatuak.

Datuak biltzeko prozedura: paperezko formularioak eta formulario informatikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: elkarteetan egotea.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarritzko maila.

14. fitxategia.– Nazioarteko adopzioa.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Euskal Autonomia Erkidegoko NAELen egiaztapenaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: NAELen ordezkariak eta informazioa eskatzen duten familiak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: erakunde pribatuak, interesduna bera.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa eta ahozkoa. paperezko euskarria, euskarri informatikoa, bestelako euskarriak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: familiari buruzkoak, nazionalitatea.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: klubetan, elkarteetan egotea.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

15. fitxategia.– Esku-hartze sozialaren hirugarren sektorerako laguntzak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: hirugarren sektoreko erakundeetarako laguntzen eta diru-laguntzen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: hirugarren sektoreko erakundeekin loturiko pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: erakunde pribatuak, interesduna bera.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa eta ahozkoa. paperezko euskarria, euskarri informatikoa, bestelako euskarriak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: klubetan, elkarteetan egotea.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, nomina-datu ez-ekonomikoak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: nomina.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarritzko maila.

16. fitxategia.– Familia bitartekotza.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: bizikidetza-egoerei dagokienez, komunikazioan bitartekotza-lanak egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: bizikidetza-harremanetan arazoak izanik zerbitzua eskatzen duten herritarrak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, interesdunaz aparteko hirugarrenak.

Datuak biltzeko prozedura: inkestak/elkarrizketak. Paperezko euskarria.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura.

Inguruabar pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-egoera, adina, jaioteguna eta jaioterria.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: zaletasunak eta bizi-estiloa.

Enpleguaren xehetasun-datuak: bestelako enplegu-datuak.

Ekonomia eta finantza-datuak: bestelako ekonomia- eta finantza-datuak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko datuak Arau-hauste penalak.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: erdiko maila.

17. fitxategia.– Gizarte.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: gizarte-laguntzaren alorreko prestazioen eta zerbitzuen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: gizarte-laguntza jasotzen duten herritarrak eta loturiko hirugarrenak, eta baita zerbitzu horien kudeaketan parte hartzen duten profesionalak ere.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, interesdunaz aparteko hirugarrenak, bestelako administrazioak.

Datuak biltzeko prozedura: inkestak/elkarrizketak, bitarteko elektronikoak. paperezko euskarria eta euskarri elektronikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura.



Inguruabar pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-egoera, adina, jaioteguna eta jaioterria, ama-hizkuntza, nazionalitatea, sexua.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: alojamendua eta etxebizitza, zaletasunak eta bizi-estiloa.

Datu akademikoak eta profesionalak: prestakuntza eta titulazioak.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, bestelako enplegu-xehetasunak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak, banku-datuak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da horrelakorik atzeman.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

18. fitxategia.– Autonomia pertsonala eta mendetasunari arreta ematea.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: mendetasun-egoerei buruzko datuen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: mendetasunen bat duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, interesdunaz aparteko hirugarrenak, bestelako administrazioak.

Datuak biltzeko prozedura: inkestak/elkarrizketak, bitarteko elektronikoak. paperezko euskarria eta euskarri elektronikoak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura.

Inguruabar pertsonalei buruzko datuak: egoera zibila, familia-egoera, adina, jaioteguna eta jaioterria, ama-hizkuntza, nazionalitatea, sexua.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: alojamendua eta etxebizitza, zaletasunak eta bizi-estiloa.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, bestelako enplegu-xehetasunak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak, banku-datuak.

Bereziki babesturiko bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: Imserso.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan balia daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

19. fitxategia.– Telelaguntza.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: Telelaguntza Zerbitzuaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: Telelaguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak eta haien ordezkariak; hala badagokio, familia-unitatea osatzen duten pertsonak eta larrialdi-egoeretan harremanetarako proposatu direnak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura: interesduna edo haren legezko ordezkaria, interesdunaz aparteko bestelako pertsonak, bestelako Administrazioak; inkestak/elkarrizketak, formularioak, telematika-transmisioa; paperean, euskarri informatiko/magnetikoan eta telematika edo telefono bidez aurkeztutako dokumentazioa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, sinadura/hatz-marka, Gizarte Segurantzako zenbakia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: familiari buruzko datuak, jaioteguna, adina, sexua, nazionalitatea, hizkuntzak.

Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak: etxebizitzari eta bizi-estiloari buruzko datuak.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, gizarte-langileak eta bestelako profesionalak.

Ekonomia- eta finantza-datuak: diru-sarrerak/errentak eta banku-datuak.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Datu-lagapenak:

Babes zibilaren eta larrialdien gaineko eskumena duen saila.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua.

Gizarte Zerbitzuen arloko eskumenak dituzten administrazioak (Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak barne).

Foru Aldundiak eta mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko eskumena duten beste organoak.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan gauzatu daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: maila altua.

20. fitxategia.– Lan harremanak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: lan-harremanei buruzko espedienteen kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: espedienteetan egon daitezkeen enpresaburuak, langileak eta gizarte-eragileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: erakunde pribatuak, interesduna bera.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa. Datuak biltzeko bestelako prozedurak. Paperezko euskarria, euskarri informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia, helbidea, Gizarte Segurantzako/mutualitateko zenbakia.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, kategoria.

Datu ekonomikoak: diru-sarrerak/errentak.

e) Datu-lagapenak:

SEPE - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Lan Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan baliatzen daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Lan Sailburuordetza

Lan Zuzendaritza

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: oinarrizko maila.

21. fitxategia.– Besteren prebentzio zerbitzuak.

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilerak: besteren prebentzio-zerbitzuen kudeaketa, kontrola eta jarraipena.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak: besteren prebentzio-zerbitzu gisa egiaztatutako enpresetako ordezkarriak eta langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: enpresa pribatuena, bestelako Administrazio Publikoena.

Datuak biltzeko prozedura: datuen transmisio elektronikoa. Datuak biltzeko bestelako prozedurak. Paperezko euskarria, euskarri informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA.

Datu akademikoak eta profesionalak: lanbide-esperientzia, prestakuntza/titulazioak.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua.

e) Datu-lagapenak:

Osalan

Lan Ministerioa

f) Fitxategiaren ardura duen organoa: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lan Sailburuordetzaren Lan Zuzendaritza.

